



2024SPLE0007  
7.bilera: OHIKOA 2024/05/30

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/07

EGUNA: 2024/05/30

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

### **EAJ-PNV udal taldea:**

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbietta Egaña.

### **EH Bildu udal taldea:**

Gilen Garcia Boyra.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

### **Orain Deba udal taldea:**

Isidro Aristi Oruezabal.

### **Bertaratzea desenkusatzeko du:**

Itziar Irizar Beristain, EH Bildu udal taldea

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra.

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.**

### **1.- Aurreko bilkurei dagozkien aktak onartzea, hala badagokio.**

Udalbatzari aurkeztu zitzaizkien, onar zitzan, 2024ko apirilaren 25ean eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta, eta 2024ko maiatzaren 13an egindako osoko bilkuraren ezohiko bileraren akta, Europako Parlamenturako hauteskundeetako hauteskunde-mahaiak osatzeko eginiko zozketarena.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, eta inork ez zuen ezer adierazi. Alkateak berak, azalduz zuen, aktaren bigarren orrialdean, sorosleen kontratuaren likidazioaren dekretuari buruzko egin zen galderaren harira, berak emandako erantzunean jasotzen dela Getariako alkateak azaldu ziola Edurne Berasaluze, Presidentziako foru diputatuaren dei bat jaso zuela, eta adierazi nahi duela foru diputatuaren izena ez dela Edurne, Irune baizik.

Gai hori argituta, Udalbatzak, aho batez, onartu zituen 2024ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuraren ohiko bileraren akta, eta 2024ko maiatzaren 13an egindako osoko bilkuraren ezohiko bileraren akta.

### **2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak azaldu zuen EH Bildutik bazituztela hainbat zalantza:

- 2024/208 Dekretua: «*TAOrako langileak kontratatzea.*» Horren harira galdetu zuen udal gobernua nola aurreikusi duen egutegi eta ordutegiaren kudeaketa, kontuan hartuta, aurten, langile bat gutxiago egongo dela.

Alkateak erantzun zion udaltzainburuarekin egin zela azterketa, Udaltzaingoan jende gehiago dagoela, eta aztertu zela dagoen aurrekontuarekin nola egin zitekeen. Udaltzainburuak adierazi zuela, TAOrako hiru langileekin moldatu zitekeela, izan ere, orain arte, lau langileekin, eguerdiko orduetan, bi langile solapatu egiten ziren eta, egutegia eta ordutegia egokituta hori saihestu zezakeela eman behar den zerbitzua bermatuta.

- 2024/225 Dekretua: «*Kanala hoteleko pergola kentzeko Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zk. Epaitegiaren 217/2023 epaia betearazteko agindua.*» Galdetu zuen ea ebazpena jakinarazi zaion interesdunari.

Alkateak erantzun zion jakinarazpena egin zegoela, eta, uste zuela pergola kentzeko epea gaindituta eta gainditzek zorian egongo zela.

Gilen Garciak galdetu zuen zeintzuk ziren orain eman beharreko pausoak, eta alkateak idazkariari eman zion hitza hark gaia azaldu zezan.

Idazkariak erantzun zuen espedientea kontsultatu gabe ezin zituela epeak zehaztu, eta tramitazioa nolako izan beharko lukeen azaldu zuen.

- 2024/226 Dekretua: «*Kiroldegiko teniseko pistetan belar artifiziala instalatzeko obren segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea kontratatzea.*» aintzat hartuta kontratuaren zenbatekoa oso txikia dela, 500 euro ingurukoa, galdetzen zuen ea zein izan zen irizpidea kontratu hori egiteko eta zergatik ez zuen lan hori hartu hirigintzako teknikari batek.

Alkateak erantzun zion uste zuela lanak burutzen ari den enpresaren proposamena zela, baina, lanen jarraipena eta ikuskapena udal aparejadoreak egin duela.

Idazkariak azaldu zuen gauza desberdinak direla obraren zuzendaritza eta obren segurtasuneko



2024SPLE0007  
7.bilera: OHIKOA 2024/05/30

eta osasuneko kontuak, eta azken horiek egin ahal izateko titulazio tekniko bat izateaz gain berariazko prestakuntza behar dela. Horregatik, gaur egun dauden udal teknikariek ezin dutela horrelakorik egin.2024/252 Dekretua: «*Hondartzetako sorosleen zerbitzua esleitzeko prozedura irekia hutsik deklaratzera*», horren harira galdetu zuen zeintzuk diren udal gobernuaren aurreikuspenak, eta, bigarrenik, zeintzuk ote diren jarraitu beharreko hurrengo pausoak.

Alkateak erantzun zion lizitazioa martxan jarrita, ez zela eskaintzarik aurkeztu, eta Gurutze Gorriarekin jarri zirela harremanetan, kontuan hartuta Udalaren bi lokal erabiltzen dutela eta Getarian eurek ematen dutela zerbitzu hori. eta Hondarribian, iaz arte, zerbitzu hori eman dutela. Bilera bat egin zela Gurutze Gorriko Debako arduradunekin, eta azaldu zutela egin zezaketela pleguan eskatzen ziren gauza txiki batzuk aldatuta, adibidez motorraren antzinatasuna. Udal ordezkariak azaldu zirela arazoa hori bakarrik bazan, erraz konpondu zitekeela, eta oso inpresio onarekin irten ziren bileratik, proposamen zehatza bat aurkeztuko zutelakotan, baina, astelehenean, mezu elektronikoa bidali zuten zuzendaritza probintzietatik ez zutela baimenik eman ez ezin zutela zerbitzua eman. Horrela, bi aukera daudela adierazi zuen, bata, aurreko urtean zerbitzua eman zuen enpresarekin negoziatzea, eta, bestea, aurreko urtean zerbitzua eman zuten sorosleek enpresa bat sortzea, eta horiekin negoziatzea.

Gilen Garciak, galdetu zuen ea Gurutze Gorrikoak baimena ez emateko arrazoiak azaldu ote zituzten, hau da, zergatik Getarian zerbitzua eman dezaketen eta Deban ez. Arrazoi ekonomikoak izan ote diren-edo.

Jon Riañok adierazi zuen Gurutze Gorriko Gipuzkoako zuzendaritzarekin bilera bat eskatu zuela eta, Aldundian bilera zutela, hurrengo astean Madrilera joan behar zirela, ezin zutela bilera egin. Jasotako mezu elektronikoa irakurri zuen. Gaineratu zuen, hala ere, bilera egiteko eskaerari eutsi egin diotela, baina epeak aurrera doazela, eta >Gurutze Gorriarekin negoziatzen jarraitzeko zailtasunak ikusten dituztela.

Bestelako adierazpenik edota galderarik ez daudenez, Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

### **3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira.

Ez ziren egon ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

### **4.- Onartzea, hala badagokio, 2025eko abuztuaren 16a tokiko jai egun deklaratzera.**

Maiatzaren 8an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen apirilaren 23ko 49/2024 Dekretua, eta hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera udalek hilabeteko epea dute tokiko jai eguna proposatzeko Laneko eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari. Dekretu horretan jasotzen denez, proposamena osoko bilkurak egin behar du.

Antolakuntza Batzordeak, 2024ko maiatzaren 20an egindako ohiko bileran 2025eko abuztuaren 16a, San Roke eguna, Debako tokiko jai eguna deklaratzeko proposamenaren aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen Laneko eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari proposatzea 2025eko abuztuaren 16a, San Roke eguna, Debako tokiko jai eguna deklaratzeko.

### 5.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 2024ko 1. kreditu aldaketa.

Ikusita Kontuhartzailtzak prestatutako Debako Udaleko 1/2024 kreditu aldaketa honako partidei eragin diena:

<b>GASTUAK:</b>		<b>ERABILITAKO BALIABIDEAK:</b>	
<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>	<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Debegesa-Next Funtsak	26.634,00	Kiroldegiko dirulaguntza	46.224,00
Kiroldegiko inbertsioak	121.784,00	Toldoen alokairua	33.020,00
Cita Alzheimer	15.000,00	Altxortegiko soberakina	232.174,00
Toldoen erosketa	15.000,00		
Eguneko zentroko zerbitzuak	6.000,00		
Erraldoi txikiak	13.000,00		
Casa Campoko begiratokia	14.000,00		
Historia Aurreko Bailara	30.000,00		
Altxa Burua	4.000,00		
Zerbitzuetako kamioi-garabia	66.000,00		
<b>GUZTIRA</b>	<b>311.418,00</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>311.418,00</b>

Ikusita Antolakuntza Batzordeak, 2024ko maiatzaren 20an egindako ohiko bileran emandako 1/2024 kreditu aldaketa onartzearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

**Lehen.**- Hasierako onspena ematea 1/2024 kreditu aldaketari.

**Bigarrena.**- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. eta 34. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

**Hirugarrena.**- Behin betiko onetsizat jotzea 1/2024 kreditu aldaketa jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkeztu ez bada. Bestela, Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazioak eta, hala badagokio, behin betiko onartuko du kreditu aldaketa.

### 6.- Onartzea, hala badagokio, Ordenantza Fiskalen aldaketa.

Kontuhartzailtzak prestatutako zerbitzuak eman eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa proposamena aurkeztu zen. Aldaketak hondartzako toldoei eragiten die, eta hau da proposatzen den aldaketa:

<u>Kontzeptua</u>	<u>2024rako proposamena</u>	<u>2023ko prezioa</u>	<u>Igoera</u>
a) Toldo 1. hiler, denboraldi osoa	235,00 €	225,00 €	%4
b) Toldo 2. hiler, denboraldi osoa	210,00 €	200,00 €	%5



2024SPLE0007  
7.bilera: OHIKOA 2024/05/30

c) Toldo, hilabeteko	120,00 €	120,00 €	==
d) Toldo, asteko	60,00 €	60,00 €	==
e) Toldo, eguneko	15,00 €	15,00 €	==
f) Aulkiak gordetzea, denboraldi osoa	50,00 €	45,00 €	%11
g) Aulkiak gordetzea, hilabeteko	25,00 €	20,00 €	%25

Antolakuntza Batzordeak, 2024ko maiatzaren 20an egindako ohiko bileran, ordenantzaren aldaketa horren aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

**Lehena.-** Behin-behinean onartzea zerbitzuak eman eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzaileen aldaketa.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Toki Ogasunen buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

**Hirugarrena.-** Behin betiko onetsizat jotzea ordenantzaren aldaketa jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkeztzen ez bada. Bestela, Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazioak eta, hala badagokio, behin betiko onartuko du ordenantzaren aldaketa.

## **7.- 2023ko aurrekontu orokorraren kitapenari buruz berri ematea.**

Alkateak 2023ko aurrekontuaren kitapenari buruzko azalpenak eman zituen, alderdi nagusiak azpimarratuz.

Udalbatza jakinaren gainean geratu zen.

## **8.- Eskari eta galderak.**

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

8.1.- Gilen Garciak, udaltzainburuaren aurkako margoketaren harira, azaldu zuen sare sozialetan margoketaren argazkia igotzea desegokia zela adierazi zutela. Euren ustez publikatu behar zena zela Udalaren salaketa. Udal langile baten irain pertsonala zuen margoketaren aurrean, udal protokoloak jasotzen duela margoketa ahalik eta azkarren ezabatu behar dela, eta kontua dela margoketa paretatik kendu dela, baina sare sozialetan argazkia ez da kendu eta bai udal webgunean, bai Facebooken edo Instagramen sartzean, ikusten lehen gauza margoketa hori da, eta euren ustez, kalean ezabatu den bezala, sare sozialetan argazkia ere aldatu beharko zela, eta pareta garbiaren argazki bat jarri, eta horrela, salatzen dela gertatutakoa, baina argazkia ez bada aldatzen, irain hori askoz gehiago zabaltzea. Udalaren helburua izan behar dela irain hori ezabatzea, zalantzarik gabe; eta irain hori salatzea, aho batez onartu zuen adierazpenaren bitartez. Baina argazkia ez bada aldatzen iraina betikotu egiten dela, eta geroz eta gehiago zabaltzen dela, horregatik, euren ustez, zegoen argazkia berehala kendu egin behar zela, eta horren ordean, adierazpena edo pareta garbiaren argazkia jarri beharko zela.

Alkateak erantzun zion bere iradokizuna kontuan hartuko zutela, baina, adierazi nahi zuela margoketan ez zela inoren izena jartzen, kabo jartzen zela, eta zalantzak zituela herrian oso garbi

ote dagoen nor den Udaltzaingoaren kaboa, batek baino gehiago uste duela beste pertsona bat dela kargu betetzen duena, eta ez zuela uste gauza bera denik izena edo kargua jartzea. Hala ere, argazkia aldatuko dela.

8.2.- Gilen Garciak, Amillagako Urbanizazio Jarduketaren Programaren (UJP) harira, azaldu zuen Lurraldetasun Batzordearen azken bileran Grupo Eibarrek UJPren aurka aurkeztutako alegazioei erantzuteko dokumentua aztertu eta landu gabe aurkeztu zen, eta mahai gainean geratu zela. Eurek ondo ikusten dutela horrekin aurrera jarraitu ez izana eta beste bilera baterako utzi izana, baina ikusita udal gobernuak gaia lantzeko denbora gehiago eskatu duela, galdetzen du ea Grupo Eibarrekin bileraren bat egon ote den, eta datorren astearterako bilerarako zein ote den udal gobernuaren asmoa.

Alkateak erantzun zion atzeratze eskatu dutela ez dutelako denborarik izan hainbat gauza lantzeko. Batetik, Udaltzaingoiari eskatutako txostena egina egongo zela egun horretako, zirriborro bat igorri dutela, baina oraindik ez zutela denborarik izan arretaz irakurtzeko, eta laster igorriko zirela txosten hori; bestetik, Grupo Eibarrekin harremana izan zutela bidalitako dokumentuko hainbat gauzak argitzeko, hala nola, ur deposituaren obrak hasi eta bukatzeko aurreikuspenak, terrenoen jabetza ingurukoak; eta, azkenik, aurkeztutako alegazioen erantzunei beste forma bat eman zirela, eta horren guztiaren berri eta Udalaren postura zein izango den berri astearteko bileran emango zutela.

Gilen Garciak eskertu zuen emandako informazioa, eta azaldu zuen euren ustez gaiaren azterketa pixka bat atzeratzea erabaki zuzena izan zela, eta eskertuko luketela dokumentazioa lehenbailehen igortzea, eurek ere behar bezala aztertzeko denbora izan dezaten eta bilera horretan bertan erantzuna emateko egoeran izan daitezten, bestela, beste bileratan gertatu den bezala, azaldu beharko dutela ezin izango dutela erabakian parte hartu.

Alkateak erantzun zion, ezin zuela ziurtatu, baina, ahaleginduk zirela dokumentazioa bihar bertan helarazten.

8.3.- Gilen Garciak, maiatzaren 20an egindako Gobernu Planaren aurkezpenaren inguruan, azaldu zuen plana aurkeztu ondoren hainbat herritarrek galderak egiteko aukerei buruz galdetu zutela eta ezezko erantzuna jaso zutela, eta, euren ustez, galderak erantzun ala ez aukera zutela, baina herritarrei galderak egiteko aukera ukatzea ez zutela zuzena jotzen, eta kontraesankorra zela ondoren udal gobernuak kaleratu zuen albistearekin, non erreferentzia egiten zen herritarrekiko hurbiltasuna, gardentasuna, eta abar. Zer gardenago eta zer hurbilago herritarrek galderak egiteko aukera izatea baino. Ondoren alkateak edo zinegotziek erabakiko dute prest ote diren, nahi ote duten, edo egoki iritzi zaien galdera horiei erantzutea, baina, euren ustez, aukera bera ukatzea kontraesankorra da gobernu bezala adierazi zuten gertutasun eta gardentasun nahia horrekin.

Alkateak erantzun zion azaldutako bere balorazio zela, baina eurek hasieratik baloratu zutela aurkezpen horretan ez zirela galderarik onartuko, eta horrela egin zutela, hasieratik gobernuak hartutako erabakiari jarraitu zutela, eta besterik ez.

Besterik ez dagoenez, 19:25etan alkateak amaitutzat eman zuen Osoko Bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika

Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra

Idazkaria

